



Urtetik urtera goraka ari da egiten turismoa eskualdean

ESKAINTZA ▶ «Gero eta turismo, kultura eta gastronomia aukera gehiago» dagoela dio Tolosaldea Tour turismo agentziak

BISITARIAK ▶ 2.500 kontsulta egin dituzte bulegoan uztaila eta abuztua bitartean; kataluniarak dira turista gehienak ▶ 2

Margolanak, barruan sentitutakoa azaleratzeko bide

ALEGIA ▶ Mertxe Etxeberria margolari urnietarraren lanak ikusgai daude Jubilatuen tabernan, hilaren amaiera arte ▶ 5

J. GOIKOETXEA



LEITZA ▶

Azken txanpan da Leitzako I. Pilota Txapelketa

Asteburuan jokatuko dituzte finalerdiak Euskal Herri osoko hogeita lau bikotek ▶ 7

Final-laurdenetako partida. J. A.

ZIZURKIL ▶

Jende orori zuzendutako ikastaroak, prest

Izen-ematea, hilaren 23a arte ▶ 4

IBARRA ▶

Herriko jubilatuek giro alaiean, bihartik igandera bitarte, Bizi-Nahi-k antolatutako jaietan

Mahai-jokoak, sukaldari lehiaketa eta bazkaria dira ekitaldirik nagusienak aurtengo egitarauan ▶ 6

TOLOSA ▶

Lau orduko auto ilarak N-1 errepidean

Kamioi batek istripua izan zuen Iruran ▶ 3

TURISMOA ▶



Goraka ari da egiten turismoa eskualdean: «Naturaren erdian dago Tolosaldea eta hondartzatik oso gertu: horregatik etortzen dira». I. ETXEBESTE

Tolosaldea, turismo iturri

«Gero eta aukera turistiko, gastronomiko eta kultural gehiago» eskaintzen ditu eskualdeak, eta bisitarien arreta pitzen ari da hori urtetik urtera

IRATXE ETXEBESTE

Tolosak eta bere inguruak gero eta aukera turistiko, gastronomiko eta kultural gehiago eskaintzen ditu». Halaxe adierazi dute Tolosaldea Tour, eskualdeko turismo agentziko arduradunek aurtengo udan Tolosaldea etorri diren bisitarien inguruko balantzea egiterakoan. Turismo bulegoan jendeak egindako kontsulta eta udan eskualdeko ostatueta egindako erreserba kopuruen arabera ondorioztatu dute hori Tolosaldea Tour-eko ordezkariak.

Uztaila eta abuztua bitartean 2.500 kontsulta egin dituzte bidaiariek eskualdeko turismo agentzian; «iaz baino dezente

gehiago». Gainera, eskualdeko herrien inguruan jendeak egiten dituen kontsulta horien kopurua «handituz» doa urtetik urtera nabarmen. Hori bai, kontsultak egiten dituztenak aurreko urteetako «leku bere-tatik etorritakoak» izan ohi direla esan dute Tolosaldea Tour-eko arduradunek: «Kataluniarrak dira eskualdera gehien hurbiltzen direnak, eta horien jarrera izan dira euskal herritarrak eta valentziarrak». Hala eta guztiz ere, gero eta jende gehiago etortzen omen da Euskal Herria eta Espainia baino urrunagotik: esate baterako, udako hila-beteetan eskualdera etortzen diren frantziarren eta italiarren kopurua hazten ari da urtetik urtera.

Eskualdean ostatu hartu dutenen kopuruari dagokionean ere balantze baikorra egiten du Tolosaldea Tour-ek: «Eskaintzen ziren ostatuen %70-75 beteta izan dira uztaillean, eta %90era heldu da abuztuko batz bestekoa, lehen hiru asteetan leku gehienak beteta egon diren arren, azken asteetan pixka bat gutxitu egin delako». Abuztuko lehen asteetan Tolosaldean leku hutsik egon ez, eta beste eskualde batzuetara bidali behar izan omen dituzte bisitariak ostatu hartzera.

Tolosaldea Tour-ek bere zerbitzuak handitu izanak ere badi zerikusia eskualdean turismoak gora egin izanarekin. Besteak beste, bisita gidatuak antolatuta dute uda osoan Santa

Maria parroquia ikusteko, eta, adituen azalpenei esker elizaren nondik norakoak ulertzeko, eta Gorrotxategi konfitegi museoarako ere prestatu dituzte bisita gidatuak. Guztira, milatik gora izan omen dira bisita gidatu horiek eskatu dituztenak.

Naturaz gozatzeko

«Tolosaldea aukeratzen duten bezero gehienek bi arrazoi dituzte hautaketa hori egiteko: batetik, beren beharriaz asetu nahi izaten dituzte naturaren erdian egonda, eta, bestetik, hondartzatik gertu hartu nahi izaten dute ostatu». Eskualdeko turismo agentziko ordezkariak hitzetan, «Tolosaldea leku ezin hobea da turis-

TOLOSALDEA TOUR

Uztaila eta abuztua bitartean 2.500 kontsulta egin dituzte turismo agentzian; iaz baino dezente gehiago

BISITARIAK

Kataluniarrak dira eskualdera gehien etortzen direnak; ondoren valentziarrak eta euskal herritarrak

mo tradizioaletik alde egin, eta turismo alternatiboaren bila dabilzanentzab».

Tolosaldea Tour-en aburuz, turismo alternatiboaren eredu da, adibidez, nekazal-turismoa. Izan ere, bisitariari hainbat aukera eskaintzen dizkio: paisaiaz gozatzeko eta eskualdeko herrietako festak eta ohiturak ezagutzeko, kasu. Horrez gain, «Gipuzkoaren bi-hotzean dago gure eskualdea, eta, hortaz, oso leku egokia da batetik bestera ibiltzeko. Turismo agentziko arduradunek diote ez dagoela esan beharrik eskualdeak aukera ugari eskaintzen dituela gastronomiari dagokionean, eta horrek berak ere egiten duela aberats Tolosaldea. «Bestalde, mendi ibilaldiak egiteko ere leku aproposa da, ezbaierik gabe, eta horrek bisitarien, eta, batez ere, mendizaleen arreta pitzen du».

Tolosaldean egunero ostatu hartzeko moduan dauden 478 plazetatik —hori ez da datu zehatz-zehatza, ostatu batzuk itxita egon direlako uztaillean edo abuztuan edota uztaillean eta abuztuan— 350 plaza bete dira, batz beste, egunero. Uztaillean eta abuztuan 21.000 plaza izan dira, guztira, beteta egon direnak. «Horrek guztiak adierazten du eskualdean goraka doala turismoa, eta gero eta eskaintza handiagoa dagoela Tolosaldean».

iragarki laburrak ▶



Aduna. 608 m²-ko pabilioa alokatzen da, zubi garabiarekin; bulegoak jarrita ditu.

Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran.

Albiztur. Eraberritzeko dagoen baserria salgai, 200m²-ko hiru solairurekin eta 35.000 m²-ko lursailarekin.

Asteasu. 1.050 m²-ko bi solairuko eta 250 m²-ko solairu artea duen pabilioa salgai edo alokeran. Mota guztietako tresna eta hobekuntzekin

hornitua. Informazioa nahi izanez gero deitu Basabi inmobiliariara.

Beasain. 45 m² erabilgarriko etxebizitza eta lokal komertziala salgai.

Berrobi. 50 m²-ko etxebizitza, salgai, planta baxuan. Berritua.

Berastegi. 100 m²-ko bi solairuko borda salgai, moldatu beharra, 75.000 m²-ko lur-saila, 35 eta 50 urteko laritz pinuarekin.

Bidanía. 160m² eraikitako bi etxebizitza adosatuta salgai.

Lasarte. Hirugarren solairuan, 65 m² erabilgarriko etxebizitza salgai

Oztaran kalean. Kanpoaldera.

Lizartza. Eraikuntza berrikoak, 350 m²-tik hasita, 14.000 m² pabilio salgai.

Segura. Eraikitzeko dauden 14 etxebizitza salgai, 297.500 eurotik aurrera.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m² dituen etxebizitza berritua salgai.

Atzealdean baratza eta txabola propioarekin.

Tolosa. Belate pasealekua, 4. solairuko etxebizitza, 70 m²-koa.

Kanpoaldera, igogailua eta trastelekuarekin.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskitsean, 110 m²-ko etxebizitza salgai. Kanpoaldera eta, eguzkitsua. Igogailuarekin. Berritzeko premia.

Tolosa. Apataerrek, lehenengo solairuan etxebizitza eta bigarren solairuan duplex-a. Berritua.

Garajea eta lur-sailarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel, eraikuntza berriko apartamenduak, 65 m² erabilgarri.

Tolosa. Zumalakarregi kalean hirugarren solairuan berrituriko bi etxebizitza salgai.

TOLOSA ▶ KULTURA

Bonbereneak agenda beteta dakar datozen bi hilabeteetarako

Hil honen azken asteburuan hasiko dira ekitaldiak; artean, kontzertu ugari, graffiti erakustaldia eta skate txapelketa



Aurten V. Skate Txapelketa egingo dute. Argazkian, iazkoa. I. TERRADILLOS

NOELIA LATABURU

Hil honen azken asteburuan ekingo diote berriro Bonberenean ohiko kontzertu agendari, bai eta bestelako ekitaldi guztiei ere. Bada, udako atsedendiaren ostean, ez da aspertzeko astirik izango Tolosan, asteburuko eskainiko dituzten musika kontzertu berri zein usadio bilakatu diren txapelketa eta erakustaldiei esker.

Horrela, batukadaren emanaldiak irekiko du, hilaren 24an, Bonbereneako agenda. Astebete beranduago, berriz, Nuevo Catecismo Catolico eta Basque Country Pharaons taldeek hartuko dute haien lekukoa. Lehenengoa La Perrera taldea banatzean sorturiko punk taldea da —urriaren 21ean Bonberenea bisitatuko duen Señor No taldea ere hemendik sortu zen—. Bestalde, Bonbereneako txarangak kiroldegiko aurkezpenarekin bat egin nahi izan du, eta kaleak alaituz irtengo da hilaren 24an. Hauek guztiek urriko ekitaldiei emango diete bide. Askota-

riko ekintzak antolatu dituzte udazkeneko lehen hilabete honetarako. Musikaz gain, graffiti erakustaldia eta ohiko Skate Txapelketa izango dituzte aukeran. Azken honen bosgarren edizioa dute aurtengoan, aurrereko urteetan jende andana bildu dituen. Ikusizunaz gozatzeko aukera galdu nahi ez duenak urriaren 22an du hitzordua.

Hasi berriak diren taldeek zein euskal musika munduan eskarmentu handiko abeslariak bisitatuko dute Bonbereneako eszenatokia. Def con Dos, hilaren 14an, Kuraia, 22an, eta Anje Duhalde, 28an, osatzen dute, batik bat, izen esanguratsuen zerranda. Ez dira bakarrik, ordea. Izan ere, Surfin Kaos, Panics, Sei Urte, Kerobia, Zura, Amodioa, Potemkin, Lor, Señor No eta Electric Riders musika taldeek ere kontzertuak eskainiko dituzte.

Aurtengoa, seigarrena

Sei urte bete dira dagoeneko «autogestioan eta taldekako

EGITARAUA ▶

Musika izango da nagusi irailerako eta urriarako antolatutako ekitaldietan.

IRAILA

23, ostirala. Batukada, 22:30ean.

24, larunbata. Txaranga irtengo da Usabal kiroldegiko aurkezpenean.

30, ostirala. Nuevo Catecismo Catolico eta Basque Country Pharaons, 22:30ean.

URRIA

1, larunbata. Surfin Kaos eta Panics, 22:30ean.

7, ostirala. Sei Urte eta Kerobia, 22:30ean.

8, larunbata. Zura eta Amodioa, 22:30ean.

14, ostirala. Def con Dos, 22:30ean.

15, larunbata. Potemkin eta Lor, 22:30ean.

21, ostirala. Señor No eta Electric Riders, 22:30ean.

22, larunbata. 15:00etan, graffiti erakustaldia; 16:30ean, Bonberenea 5. Skate Txapelketa Dj-rekin; 22:30ean, Kuraia.

28, ostirala. Anje Duhalde, 22:30ean.

asmoetan sinistuz Bonberenea errealtate bilakatu zenetik». Orduetik hamaika kultur ekitaldi antolatu dituzte bertan, musika, antzerkia eta era askotariko txapelketa eta erakusketak, besteak beste. Seigarren urteurrena «beti bezain biziki» ospatzeko asmoa dute Bonbereneakoek, bertan jazoko diren ekintza orori buruzko informazioa guztioi zabaltzeko helburuz. Festa giroa ez da faltako, bederen, beti ere musika doinuak nagusi izaki.

IRURA ▶ ISTRIPUA



Lau orduko auto ilarak atzo jazo zen istripuaren ondorioz

Noelia Lataburu ▶ N-1 errepidea itxita egon zen lau orduz Irura parean Irunerako norabidean, atzo goizean, kamioi batek izandako istripuaren ondorioz. Goizaldeko 05:00ak aldera oholak garraiatzen zituen kamioi bat bidetik atera zen, errepidean gurutzatuz. Ezbeharrean inor ez zen zauritu. JULEN GOIKOETXEA

TOLOSA ▶

Irazkik euskara ikastaroa eskainiko du

Irazkik haurrei eta helduei zuzenduriko euskara ikastaroa jarriko du aurki abian. Lehen eguna hil honetan izango da, 24an, larunbata, hain zuzen ere. Informazioa nahi dutenek edota ikastaroan izena eman nahi dutenek 678 63 83 94 telefono zenbakira deitu behar dute.

TOLOSA ▶

Alde Zaharreko lokalentzako laguntzak

Tolosako Alde Zaharra birgaitzeko udal sozietateak, Erretengibilek, lokal hutsetan jarduera ekonomikoak ezartzeko laguntzak emateko lehiaketa publikoa iragarri du. Interesaturik daudenek Erretengibilek Plaza Zaharrean duen bulegoetan eman behar dute izena, urriaren 14a baino lehen.

EUSKARA ▶

AEK-n izena emateko epea zabalik

Tolosaldeko AEK-k izena emateko matrikula epea ireki du, 943 59 17 04 zenbakira deituta edo andoain@aek-net.net helbidean. Maila guztietako ikastaroak eskaintzen ditu AEK-k, behe, erdi eta goi urratsetakoak. Hauek gain, bestelako ikastaroak ere landuko dituzte.

KEY-LAN
Sarrailgintza
Nafarroa etorb, 13 behea - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

MENDI-ALDE
Eguneroko menuak eta karta **Jatetxea**
Bataioak, Jaunartzeak,...
San Esteban auzoa, 39 • ☎ 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

ZIZURKIL ▶

Ikastaro eta ekintza ugari antolatu dituzte ikasturte berrirako

Jende orori zuzendutako ikastaroak antolatu ditu Udalak urritik ekainera bitartean; izen-ematea hilaren 23a arte da



Haurrentzat antzerki ikastaroak izango dira, besteak beste. HITZA

NEREA LIZARTZA

Haurrentzat, gazteentzat, helduentzat eta erretiratuentzat zuzendutako hainbat ikastaro antolatu ditu Zizurkilgo Udalak 2005-2006 ikasturterako. Inor ez da ikastaro hauetatik at geldituko. Beraz, denbora librean aspertzeko betarik, behintzat, ez dute izango zizurkildarrek.

Izen-emate epea hilaren 23a bitartean zabalik egongo da Zizurkilgo Aurrera plazako udal bulegoetan —jubilatuen ikastaroetarako izen-ematea eta ordainketa, berriz, Elizpe elkartearen egin behar da—. Ordainketa izena ematen den momentuan egin behar da. Ondokoak dira eskaintzen diren ikastaroak:

ATXULONDO KULTUR ETXEAN (HAURRENTZAT)

Marrazketa. Astelehenetan

18:30etik 19:30era. Prezioa: 22 euro.

Antzerkia. Asteazkenetan 17:10etik 18:40era. Prezioa: 22 euro.

Funky hip-hop dantza (15 urtetik gorakoentzat). Astelehenetan 17:30etik 19:00etara. Prezioa: 62 euro.

Perkusioa. Asteazkenetan 20:00etik 22:30era. Prezioa: 100 euro.

Eskulanak. Asteartetan 18:00etik 20:00etara. Prezioa: 62 euro.

Salsa, merengue eta bachata. Ostegunetan 20:30etik 22:00etara. Prezioa: 70 euro.

Yoga. Astelehen eta asteazkenetan 15:00etik 16:30era eta 18:45etik 20:15era; astearte eta ostegunetan 20:00etik 21:30era. Prezioa: irakaslearekin zuzenean adostuko dira.

Mantentze gimnastika. Astelehen, asteazken eta ostirale-

tan 11:00etik 12:00etara. Prezioa: irakaslearekin zuzenean adostuko dira.

ATXULONDO KULTUR ETXEA (JUBILATUENTZAT)

Gimnastika. Astelehen, asteazken eta ostiraletan 10:00etik 11:00etara.

Eskulanak. Ostegunetan 16:00etik 18:00etara.

Yoga. Ostegunetan 11:00etik 12:30era.

IRIARTE KULTUR ETXEAN (HAURRENTZAT)

Plastika. Astelehenetan 18:00etik 19:00etara (txikiak) eta 19:00etik 20:00etara (handiak). Prezioa: 22 euro + 20 euro materialerako.

Antzerkia. Asteartetan 17:00etik 18:00etara (txikiak) eta 18:00etik 19:00etara (handiak). Prezioa: 22 euro.

Eskulanak. Ostiraletan 15:00etik 17:00etara. Prezioa: 62 euro.

HIRU HILABETAKOAK

Afrikako dantzak. Asteartetan 20:00etik 21:30era. Urriaren 11tik abenduaren 20a bitartean izango da ikastaro hau. Prezioa: 50 euro.

LOATZO MUSIKA ESKOLA ETA BUKALAI DANTZA TALDEA

Loatzo musika eskola. Ordutegiaren eta eskolen gaineko informazioa nahi izanez gero, 943 69 18 57 telefonora deitu behar da.

Bukalai dantza taldea. Matrikula 45 euro. Ordutegiak dantza taldearen egoitzan zehaztuko dira.

ALKIZA ▶ JAIAK



Hainbat ekitaldi izan ziren jaietako azken egunean. XABIER ARTOLA

Amaiera ezin hobea Alkizako aurtengo jaiek

Arantzazuko Amaren festak giro bikainean eta ekitaldiz beteta iritsi ziren amaierara

N. LIZARTZA

Pilota partiduak, dantzariak, herri kirolak... izan ziren Alkizako festei amaiera eman zietenak. Egitarau oparoa prestatu zuten amaierarako, eta jendearen erantzuna ere egitarauaren neurrikoa izan zen: bikaina. Meza nagusia izan zen egunari hasiera

eman ziona. Ondoren, gazteen arteko XV pilota partiduen finalak jokatu ziren. Geroago, pailazoaren eta ikaztegiak dantza taldeen emanaldia izan zen.

Azkenik, Imuntzo eta Belokiren erromeriarekin amaitu zuten eguna, eta baita aurtengo Arantzazuko Amaren festak ere.

hilberria ▶

Joxe Asurmendi Larrea

(Aitzol gure lankidearen aita)

MAIZPIDE euskaltegiok bat egiten dugu familiarekin une latz honetan.

Hileta gaur, asteazkena, ZEGAMAko San Martin parroki elizan egingo da, arratsaldeko 19:00etan.

Maizpide euskaltegia

LAZKAO, 2005eko irailaren 14a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

ALEGIA ▶ ERAKUSKETA



Urteroak. Urteko garai ezberdinak ageri dira hiru koadroetan. J. GOIKOETXEA



Kolorea. Kolorea da Etxeberriaren koadroen ezaugarri nagusia. J. GOIKOETXEA



Haizearen orrazia. Berehala ezagutuko du toki hau ikusleak. J. GOIKOETXEA



Kontrastea. Mendiko herrixkak zein lakuak ikus daitezke koadroetan. J. GOIKOETXEA

Barneko sentsazioak pinturan islaturik

Mertxe Etxeberria margolari urnietarraren lanak daude ikusgai Jubilatuen tabernan hilaren amaiera arte

JULEN GOIKOETXEA

Azkenaldiko ohiturari jarraituz, erakusketa berri bat dago ikusgai egunotan Jubilatuen tabernan. Mertxe Etxeberria urnietarraren margolanak aurkituko dituz horretan eskegita egunotan aipatu tabernara sartzen denak. Paisaia ezberdinak erakusten dituzten hainbat lan jarri ditu erakusgai eta

bisitan doanak, ikusteaz gain, txunditurik utzi duen artelan horietakoren bat erosteko aukera izango du. Koadroak ondoko prezioetan daude: merkean 180 euro balio ditu, eta garestienak 350 euro. Gainontzekoak tarte horretan daude.

Mertxe Etxeberriak HITZARI adierazi dionez, «oso gustura» dago bere lanak jendaurrean aurkeztu ahal izateko Jubila-

tuen tabernakoek eman dioten aukerarekin. Duela bost urte hasi zen etxean koadroak egiten, eta Alegiakoa ez da bere ibilbide laburrean aurkeztu duen erakusketa bakarra; izan ere, alde aurretik bere lanak ikusgai izan dira Beasainen eta Hernialden.

Erakusketaren alor artistikolari dagokionez, bere margolanak egiterakoan, ez duela oina-

rrizat estilo finkorik hartzen adierazi du Etxeberriak: «Barruan sentitzen duena pinturan adierazten saiatzen naiz, besterik ez». Hori horrela izanik, margolariaren alaitasunaz jabetuko da erakusketa ikustera doana, kolorez beteriko paisaia ikusgarriak margotu baititu artista urnietarrak. Aurrera begira, Etxeberriak ez du baztertzen erakusketa gehiago egitea.

Tabernakoak ere, pozik

Jubilatuen tabernako ardura-dunak ere pozik dira erakusketari hori beren tabernan izanda. Artelanek jendea erakartzeaz gain, taberna berari ere bizitua ematen diote. Hilaren amaiera arte ikusgai izango den erakusketa izaten ari den

arrakasta ikusita, aurrerantzean ere beste batzuk jartzeko asmoa dutela ere baieztatu dute; izan ere, antolatzen den erakusketa oro tabernaren onurarako da.

Herriko arte eskaintzarik zabalena izaten dute Jubilatuen tabernakoek. Azkenaldian, askotariko erakusketak antolatu dituzte, eta guztiek jaso dute herritarren harrera ona. Leku askotako argazkiak, mota ezberdinetako margolanak... Arteen alor ezberdinen lekuko izan dira Jubilatuen tabernako hormak.

Beraz, kafetxo bat arteaz gozatzu hartzeko gogo duenak, Jubilatuen tabernan du horretarako aukera paregabea. Bertan izango dituz zain Mertxe Etxeberriaren koadro koloretsuak.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Furgoneta. Volkswagen Multiban TDI, 102 zaldi, SS-AW, egoera onean. Deitu telefono zenbaki honetara: 626 71 39 04. (14:00etatik aurrera).

Egurra. Su egur lehorra salgai.

Pagoa eta haritza. Deitu telefono zenbaki honetara: 615 75 57 62 (arratsaldetan).

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 69 19 33.

Neska. Legorretako neska

behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Deitu telefono honetara: 609 16 16 35.

Tabernaria. Neska euskaldun

bat behar da taberna batean 4 orduz lan egiteko. Deitu telefono zenbaki honetara: 675 70 11 78.

IBARRA ▶

Lastur-era
egun-pasa
hilaren 24an

Garagardo Azokan egindako lana eskertuz, Lastur-era egun-pasa antolatu dute hilaren 24an. 09:30ean aterako dira autobusez Ibarako Kultur Etxearen paretik. Zarautzen hamaiketako, eguerdian kalejira Getarian, Lastur-eren bazkaria eta ondoren zezenak izango dituzte. Txartelak ahalik eta azkarren eskuratu beharko dira Atari eta Danon Txokoa tabernetan.

IBARRA ▶

EHNA
tramitatuko
dute bihar

Bai Euskal Herriari ekimenak jakinarazi duenez, bihar, hilaren 15a, batzarra egingo dute. Hain zuzen ere, EHNA tramitatu eta eskuratu ez zutenei zuzendurikoa izango da batzar hori. 19:30ean Ibarako Benito Izagirre kultur etxean izango da, eta bertan tramitatu ahal izango da EHNA. Horretarako, bertara agertu baino ez du egin beharko interesa duenak.

LIZARTZA ▶

Pirritx eta Porrotx
pailazoak etzi
pilotalekuan

Etzi, hilaren 16a, ostirala, 17:30ean, Pirritx eta Porrotx pailazoan *Patata patata* ikuskizuna antolatu du Galtzaundi Euskara Taldeak, Lizartzako Udalarekin elkarlanean, Lizartzako frontoian. Sarrera txartelak salgai daude dagoneko 5 euroren truke, eta horiek eskuratu ahal izateko Lizartzako udaletxera edo Galtzaundiren egoitzara jo behar da.

IBARRA ▶

Izaskun-en
arteko bazkaria
igande honetan

Igande honetan egingo dute Izaskun izena dutenen arteko ohiko bazkaria, Izaskunen. 13:30ean meza izango dute ermitan, eta ondoren bazkaria Izaskun jatetxean. Egun-pasa honetan izena eman nahi dutenek 943 67 59 27 telefono zenbakira deitu beharko dute, goizez. Horretarako azken eguna bihar, hilaren 15a, izango dela jakinarazi dute.

IBARRA ▶

Euskara
ikasteko
izena emateko
epea zabalik

I. TERRADILLOS

Euskara ikasi nahi duten ibartarrek euskaltegian izena emateko epea zabalik dute. Argibideetarako euskaltegia edo udaletxera jo dezakete.

Aitzol euskaltegian izena emateko azken eguna hilaren 20a izango da, eta bulego ordutegia goizez 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 17:00etatik 20:00etara da. Telefonoz, 943 65 10 06 zenbakian. AEKn, hilaren 23a izango da azken eguna, eta bulego ordutegia 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:30era da. Telefonoz, 943 59 17 04 zenbakian. Ibarako Euskara Zerbitzua-oren ordutegia 10:00etatik 13:00etara da, eta telefonoz 943 67 38 27an. Autoikas- kuntzaren eskaintza ere badago, Aitzol euskaltegian.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Bihar hasiko dira
Bizi-Nahi jubilatuen
elkarteko jaiak

Igandea bitarte ekitaldi ugari izango dira; mahai-jokoak, sukaldari lehiaketa eta igandeko bazkaria dira nagusienak



Iazko fritada lehiaketan parte hartu zuten bazkideak, sukaldari lanean. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

«Egun hauetan, egin dezagun gerald bat eguneroko ibilbidean eta presta gaitezen jai hauek poztasun eta alaitasun osoz ospatzeko. Bizi-Nahi da gure lelo eta ezaugarri; jai egin dezagun gure izenaren omenez, zaharsaridun adiskideok. Alaitasuna eta poza, lagunok!». Hitz horiekin egin die Iñaki Reondo Ibarako Bizi-Nahi jubilatuei eta pentsiodunen elkarteko lehendakariak gonbita bertako bazkideei aurtengo jaie-tara.

Izan ere, bihar hasiko dira

Ibarako jubilatuen jaiak, eta igandea bitarte ekitaldi zeterik egitaraua dute antolaturik. Bihar bandera altxatzearekin hasiko dute festa, eta arratsaldean mahai jokoak izango dituzte. Gauean ohikoa den erregina eta damen aukeratzeko egingo dute, eta luntzarekin eta dantzaldiarekin amaituko dute eguna.

Ostiraleko ekitaldi berezia arratsaldean egingo den bakailoa piper eta tomateekin lehiaketa izango da; elkarteko bazkide guztiek hartu ahal izango dute parte, eta lehen eta bigarren postuan sailkatzen

diren bi partaideek saria irabaziko dute. Txapelketaren osteko bazkideek bertako sukaldari-riek prestatuturiko jakiak dastatzeko aukera izango dute.

Larunbatean toka txapelketa eta futbol partida izango dira, eta baita haur jaialdia ere: jokoak izango dira haurrentzat, eta txokolatada eta opariak banatuko dituzte.

Igandea izango da azken eguna. Egun horretan azzimarratzeko izango da Belabieta pilotalekuan egingo duten bazkaria. Ondoren dantzaldia izango dute, eta arratsaldean emango zaie jaiei amaiera.

EGITARAUA ▶

BIHAR, OSTEGUNA

12:00. Jaien hasiera. Bandera jasotzea.
16:00. Mus, tute, eskoba eta puntu txapelketa.
20:00. Jaietako erregina eta ohorezko damak aukeratzeko.
Ondoren. Luntxa eta dantzaldia.

ETZI, OSTIRALA

09:30. Ibilaldia zaharren partaidetzarekin.
Ondoren. Hamaiketako.
17:00. Bakailoa piper eta tomateekin lehiaketa parte hartu nahi duten bazkide guztientzat.
17:00. Mahai jokoen finalak.
Ondoren. Aferia bazkideen artean.

HILAREN 17A, LARUNBATA

11:30. Toka txapelketa.
Ondoren. Txapelketako partaideentzat hamaiketako Ibarako tomate eta piparrekin.
16:30. Futbol partida herriko bi talde ezagunen artean.
18:00. Haur jaialdia.

HILAREN 18A, IGANDEA

09:00. Diana herriko txistularien eskutik.
12:00. Meza San Bartolome elizan hildako bazkideen oroimenez.
12:00. Alurr dantza taldeak gonbidatuta, Ezpeletako dantzarien saioa Euskal Herria kalean, Hauspoak antolatzen duen *Bertakoa Ezagutzekoa!* azokaren baitan. Jubilatuen elkartekoak nahiz gainerako herritarrek gonbidatuta daude ekitaldi horretara.
14:00. Lagunarteko bazkaria Belabieta pilotalekuan.
Ondoren. Dantzaldia eta irrintziak.
19:30. 2005. urteko jaien amaiera.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibaraldea. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egotza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ LEITZAKO I. PILOTA TXAPELKETA

Txapelketako finaletarako txartelak jokoan asteburuan

Sei maila, 24 bikote eta 12 txartel: Euskal Herri osotik etorritako pilotari gazteak hilaren 25ean jokatuko diren finaletan aritzeko leku baten bila borrokatuko dira



Igandeko final-laurdenetan, gazteen mailan, Andreu sakea egitera eta Iriarte erantzuteko prest. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Dagoeneko finalurreko saioen zain jarrita daude Leitzako I. Eskuz Binakako Pilota Txapelketako parte-hartzaile guztiak, nahiz pilotariak, nahiz Aurrerako pilota eskolako arduradurak,

antolatzaileak, hain zuzen ere.

Heldu den asteburu honetan bertan jokatuko dira txapelketako honetako azkenurreko partiduak, azkenak jokatzeko pasaren bila doazen bikoteak ezagun baitira, igandean joko-

tu ziren-eta parte-hartzaile helduener partiduak. Kadeteetan, Iturriotz-Madariaga jabetu ziren partiduak, 22-19koarekin, Idoate-Madariagaren aurka. Maila honetan aipatzekoa da Aurrerako pilotari mordoskak duela finalean egoteko au-

tera, lau bikoteetatik hirutan: Alustiza aresoarrak, eta Alduntzin eta Sagastibeltza leitzarrak zehazki. Gazteetan, Andreuk eta Gorrotxategik irabazi zuten, Larrañaga eta Iriarteren aurka, 22-11koarekin. Azken hau, Mikel Iriarte, bertako taldeko ordezkari zen, eta ez zuen aurrera jarraitzerik lortu; horrela, maila honetan, bertako eskolako kide bakarra izanena da, Lansalot, lekunberriarra bera. Eta helduetan ere ez daude kexatzeko moduan bertakoak. Izan ere, Olazabalek —aresoarra bera eta Aurrera taldeko kidea— eta Iruretak 22 eta 10 irabazi zieten Arraztoa eta Gartzia (hau leitzarra da, baina ez eskola berekoa). Maila honetan bereziki aipatzekoa da finalurrekoa jokatuko duten lau bikoteetatik hirutan bertakoen presentzia nabarmena dela: Mikel Olazabalekin batera, Ibai Bengoetxea atzean Iñaki Iparragirre duela (hau beste klub batekoa da) eta Patxi Betelu. Eskolako mailaren adierazle dira guztiak, inondik ere, gazteen artekoak ere aipatzez utzi gabe: Mikel Sagasti-

FINALURREAK ▶

ETZI, OSTIRALA, 19:30.

Kadeteak. Sagastibeltza-Gartzia / Iturriotz-Madariaga.
Gazteak. Lansalot-Otxotorena / Urrutia-Mixelena.
Helduak. Renobales-Tabar / Errea-Betelu.

LARUNBATA, 09:30.

Benjaminak. Sagastibeltza-Garaio / Altuna-Altuna; Untxalo-Aizpuru / Olano-Altuna.
Alebinak. Ijorra-Larraia / Arozena-Unanua; Joldi-Arztimuño / Etxeberria-Beraza.
Infantilak. Madariaga-Lana / Aranburu-Zabaleta; Ansotegi-Aizpuru / Jaunarena-Iraola.

IGANDEA, 09:30.

Kadeteak. Alustiza-Leunda / Alduntzin-Teiletxea.
Gazteak. Narbarte-Uzkudun / Andreu-Legarreta.
Helduak. Bengoetxea-Iparragirre / Olazabal-Irureta.

beltza, Anartz Olano, Ander Aranburu eta Jon Jaunarena.

Horrela, etzi, etzidamu dira igandean bertan jokatuko dira finalurreko partiduak. Oraindainokoak politak izaten ari badira, esan liteke oraingo hauek ere halaxe izanen direla. Antolatzaileek zaletuei Amazabal pilotalekura joateko gonbita egin diete: «Pilotariak ere jarraitzaileen animoan gusturago aritzen dira-eta», esanek.

LEITZA ▶ HEZKUNTZA



Amazabaleko pasabideak ikaslez bete dira

J. Astibia ▶ Aurkezpen eguna herenegun izan bazuten ere, atzokoan ekin zioten lanari Amazabal Institututuko ikasleek. Aurten, ia bezala kasualitatez, 199 ikasle ariko dira DBH eta Batxilergoa egiten: Leitzako Erletatik eta Aresoko eskolatik eto-

rritako 28 ikasle berriei, Aritz aldetik eta Goizueta eta Aranotik egunero mugituko diren beste 16 gehitu behar zaizkie, hauek 3. DBHn hasi badira ere. Hauen guztien ikasketez 33 irakasle arduratuko dira. J. ASTIBIA

LEITZA ▶ KULTURA

Aralar musika eskolako bilerara deitu dute bihar

Hastear dagoen ikasturte berri honetarako nondik norakoak zehaztuko dituzte bertan

J. ASTIBIA

Bihar, osteguna, 18.00etan, eta Erleta eskolako jantokian, egingen dute bilera Aralar musika eskolakok.

Jakitera eman dutenez, aurrean ere abian jartzekoa duten musika eskolaren martxaz ariko dira bertan: ikasturtearen hasierako data, eskolen antolaketa, eta ikasturte honetarako dituzten asmoen eta lanen berri emanen dute, besteak beste.

Gauzak horrela, gurasoei bilerara joatea «oso garrantzitsua» dela adierazi nahi izan

diete, eta bertan parte hartzeko dei egin, eskolatik bertatik.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Besteak beste, oraingoan Leitzako eguneguneko gai bati buruzko galdera dago egina gure web-orrian: «Zer iruditzen zaizu herriko gazteak Ateka Beltza etxea erabiltzen hasi izana?». Sartu gure leihora, eta zure iritzia bertan idatziz parte har dezakezu.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko irailaren 14a, asteazkena ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Ernioko erromeriarako autobusa antolatu du Udalak igandean, Alkizaraino joateko. 09:00etan abiatuko da, plazatik, eta 18:00etan itzuli —euria eginez gero, 14:30ak aldera—. Hamaitakoa eta bazkaria ematea eskatu dute. Izen-ematea, bihar arte, udalekxan eta ikastolan.
Anoeta. Bizikleta txekoak, Oriako Txirindulari Eskolak antolatuta. Bihar, 17:00etatik 19:00etara, plazan. Mugikortasun Astearen baitan.
Tolosa. Hauraren eguna La Jaran: jolasak, marrazkiak, idazlanak eta txokolate jatea. 19:30ean, *Zer dakizu Extremaduraz?* lehiaketa. Extremadurako Kultur Astearen baitan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Mertxe Etxeberriaren margolanak. Hilaren bukaera arte, Jubilatuen tabernan.
Tolosa. Garbiñe Biurrun eta Maria Jesus Mendizabal bazkideek egindako eskulan eta pinturen erakusketa, La Jara zentroan. Kultur Astearen baitan.
Tolosa. Txaro Medranoren erakusketa. Hilaren amaiera arte, Lanbroa tabernan.
Tolosa. Rosa Maria Ruiz margolanak Sorron enmarkazio dendan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra, Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Leitza, Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.

IRRATIA

Txolarre (107,5 FM)
11:30. 14:00ak arte, *Tolosaldeko Aho*sa. Aneetan bildutako oharrak, Tere Soto kultur teknikariaren eskutik.
12:00. Kultur ekitaldien errepaso.
12:15. Euskararen inguruko gaiak: Aitzol Udak Euskaltegian matrikulazio kanpaina zabalik, Miren Abxaga zuzendariarekin elkarrizketa. Villabona eta Zizurkilgo alkateek emandako prentsaurrekoan bildutakoak.
13:10. *Izkutuko koloreak* irrati nobela.
13:15. Lehiaketa eta disko eskaniak.
19:00-21:00. 19:00etatik 21:00etara, *Tolosaldeko Aho*sa-ren errepikapena.
22:00-23:00. *Street Noise* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Hondartzan eta merkatuan

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Portugalgo Algarven eta Londresko merkatuan ateratako irudiak iritsi zaizkigu argazki lehiaketara



ALGARVE ▶

Henar Aristimuño (Tolosa).

Portugal aldean pasatu dituzte oporrak Henar Aristimuñok eta bere lagunek. Argazkiarekin batera, testutxo hau bidali digu tolosarrak: «Kaixo! Argazki hau bidaltzen dizuet, gure oporretan hartua. Kala bat ikus dezakegu, eta bertan pixkanaka eguzkia arroken atzean ezkututzen ari da, denak ilunpetan utziz. Argazkia Praia da Rocha dago hartuta, Algarven (Portugal)».

LONDRESKO MERKATU SALTOKI BITXIA ▶

Mikel Iraola (Tolosa).

Londres aldean ibili da Mikel Iraola tolosarra, eta hango bitxikeriak jaso ditu bere argazkietan. Hala dio: «Londresko merkatu famatu batean, hauxe harrapatu genuen. Bitxia da, zeren eta atzean produktu horietako denda bat baita, eta gauzak edukitzeko forma bitxia da».



AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Maddi Lopetegi Serrano (Ordizia).
Gaur 3 urte. Zorionak eta muxu asko aitton-amona eta etxeko guztien partez.



ZORIONAK

Alaiz Irazusta (Berrobi). Koadrilako Poxpik ere bete dizkigu 19. Egun ona pasa dezala koadrilaren partez.

HITZA,
zorion agurren
tarteak

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5. behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia
bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!